

# Arrasate

PRESSA

1998ko  
Urtarrilak 23  
392. zenb.

*Tratu txarrak jasaten  
dituzten emakumeen  
kasuak ez dira marginalitateak  
edota kasualitateak  
eragindakoak.*

## Tratu txarrak: denon ardura

*Jipoitutako emakumeek  
ausardiaz gaingitu dezakete  
euren egoera. Gizarteak,  
berriz, sentsibilizazio  
eta heziketaz.*

**IKUSPEGIA: ANDER ETXEBERRIA • KULTURA: JON ANDUEZA**  
**30 GALDERETAN: ERRUKANE APERRIBAI • IRITZIA: FERNANDO AGURIONDO**





# Arrasateko OSASUN GIDA

## DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz, 35..... ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTROA Iturriotz, 7 Bis..... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1º ..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5..... ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... ☎77 12 63

## DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1 ..... ☎79 72 16
- CRISTINA GARCIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerías, 56 behea..... ☎79 44 22

## ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1..... ☎77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1..... ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ..... ☎79 72 16

## FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTROA Olarte 43 Bis ..... ☎77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko kale, 37 ..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10 ..... ☎79 48 77

## MASAJISTAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎77 01 33

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1..... ☎79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobiila) ☎989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎79 20 18

## PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎79 53 63

## PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10 ..... ☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko Kale, 37..... ☎79 79 46


## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎79 44 22



# Aurten bai!

**G**abonzahar-gauean, lagun batekin berbetan, urte berriari nobixia eskatu ziola esan zidan. Mundua mundu denez gero gaztaroko buruhausteetarikoa bat neska edo mutila topatzea da. Batez ere gaztearengan, nahiz eta joko hezigarrietan bezala tartea oso zabala den: 13 eta 113 urte (gutxi gora-behera) bitarteko pertsoneri eragiten die.



Ander Etxeberria

Aspalditik buruan darabilen zeregin horri aurten serioски heldu behar dio. Urtearen eskuetan soilik ezin du utzi berriro ere hain eginkizun garrantzitsuak. Denbora aurrera doa, eta kalean, batek bikotea dauka, inoiz espero ez zuen hark ere bilatu du laguna, koadrila ez da lehen modukoa aleak

## “Gaztaroko buruhausteetarikoa bat neska edo mutila topatzea da”

galdu dituelako neska edo mutilen batek eroanda, etab. Etxekoek ere, borondate onez (uste duenez), gogoratu eragiten diote egoera: gurasoek batzuetan, eta osabaren batek ikusten duen guztietan, “ta... zelan zabiltz nobixa kontuetan?” galdeztzen diote. Arreba txikia jadanik errespetoa galduta dabil, mutilzahar deitzen dio noizean behin. Azken batean,

nire lagunaren ustez behintzat, presio soziala da hori. Ingurura begiratu kontuak atera ditu eta badaki nora bideratu behar dituen indarrak: printzesa ez du Belgikan adibidez lortuko; gertu behar du izan, Mondra-

goen edo inguruko herrietan. Hurbilago oraindik, bera dabilen taberna berberetan aurkituko duelakoan dago

(izan ere, bat edo bi fitxatuta dauzka). Klasean edo lantegian topatzea ere suerta daiteke. Adinari dagokionean, estatistikei begiratu, badaki emankorrena bera baino neska gazteagoengana jotzea dela.

Bestalde, aurreko urteetan jarraitutako estrategiari egin beharko dio aldaketarik. Lehenik eta behin boletok erosi beharko du saria irabaziko badu. Gogoia lanean jarri. Bizitzak erakutsi dio, zergatia ulertzen ez badu ere, beragana hurbiltzea zailagoa dela. Hortaz, mendia ez badator beragana, bera joango da mendira. Jaietan edo larunbat gauean saiatu bai, baina domeka arratsaldean, gauean erakutsitako maila altuari eutsi beharko dio. Puntu zailenarikoa hor ikusten du.

Dena dela, normalean lan osoa ez du nire lagunak bete behar izango, neskarik egongo da-eta egoera berdinean. Hemen ez dago kanpoko “karabanarik” ekartzeko premiarik. Animo, txo! ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE PRESS**  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Otxalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazalaritza:** Ixarri Zubillaga, Marian Porcel, Paiti Montero. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixarri Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Malte Barreña. **Banaketaren ardura:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Golo Arana.

Arrasateko Udaleren  
laguntza

Gipuzkoako Foru  
Aldundien laguntza

Eusko Jaurlaritzako  
Kultura  
Sailerren laguntza

## 392. zenbaki honetan

1998ko urtarrilaren 23an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	28/29
Irakurlea idazle .....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza .....	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia .....	17/19	Denborapasak .....	32
Euren ikuspuntutik .....	8	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun .....	33
Astearen erreposoa....	10	30 galderetan .....	26	Fotozaharra .....	34

*Ikuspegia*

**Ander Etxeberria** .....3

*Euren ikuspegitik*

**Fernando Aguriondo**.....8

*Aurrez aurre*

**Juan Ignacio Montiano** .....24/25

*Kulturaren txokoa*

**Jon Andueza**.....29

*Asteko gaia*

**Tratu txarrak**.....17/19

Arrasateko gizarte zerbitzuek laguntza ekonomiko, psikiko eta juridikoa eskaintzen diete emakume erasotuei.



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 23**  
• Gauez: Azkoaga, Ferrerías.
- Larunbata 24**  
• Gauez: Español, Iturriotz.
- Igandea 25**  
• Gauez: Corcuera, Musakola.
- Astelehena 26**  
• Gauez: Irizar, Erguin.
- Asteartea 27**  
• Gauez: Amezua, Santamaina.
- Asteazkena 28**  
• Gauez: Zabala, Zurgaldel.
- Osteguna 29**  
• Gauez: Ruiz, Maala.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
Iguatorialdea . . . 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . 79 39 00  
(emakumeak) . . . 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdia) . . . 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
• Espezialitateak . . . 77 05 78  
. . . 77 12 64  
Oñati . . . 78 08 52  
Eskoriatza . . . 79 98 58  
Aretxabaleta . . . 79 74 58  
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati . . . 78 04 11  
Bergara . . . 76 14 69  
Arrasate . . . 79 14 39  
Aretxabaleta . . . 79 10 52  
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea . . . 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62  
Gasa . . . 900 40 05 23  
. . . 79 78 44  
. . . 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak . . . 79 12 22  
PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**  
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

23  
ostirala

■ ZINEA  
*The game.* Alai zineman  
7etan eta 10etan.

25  
igandea

■ ZINEA  
*Air Bud.* Alai zineman  
5etan. *The game.* Arratsalde-  
ko 7.30etan eta 10etan.

27  
asteartea

■ ZINEA  
*The game.* Alai zineman  
7etan eta 9.30etan.

24  
larunbata

■ ZINEA  
*Air Bud.* Alai zineman  
5etan. *The game.* 7.30etan eta  
10etan.

■ DIAPOSITIBA  
EMANALDIA  
Besaideko gazte ekintza  
taldeak diapositiba emanaldia  
eskainiko du, arratsaldeko  
5etan, Besaideren egoitzan.

■ SAN FELIPE APOSTOL  
KOFRADIAREN BATZAR  
NAGUSIA

Batzar nagusia eguerdiko  
12.15etan San Viator ikastol-  
an. Goizeko 11etan San Fran-  
tzisko elizan izango den meza  
hildako bazkideen alde izan-  
go da.

■ NIKARAGUARI  
BURUZKO ERAKUSKETA

Jai zale tabernan dagoen  
Nikaraguari buruzko argazki  
eta mural erakusketa ikuste-  
ko azken eguna. Komite Inter-  
nazionalistak antolatuta.

26  
astelehena

■ ZINEA  
*The game.* Alai zineman  
7etan eta 9.30etan.

29  
osteguna

■ ZINEA  
*Nada que perder.* Alai  
zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ZINE KLUBA  
*Gorrotoa.* Amaia antzo-  
kian gaueko 9.30etan. Sarre-  
ra: 400 pta. eta Gazte Txarte-  
larekin 350 pta.

Monte  
taberna

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

URRATS  
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

TOKION  
ELEKTRONIKA

ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE



■ **MARTXOAK 8  
KARTEL LEHIAKETA**

Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelen neurriak gehienez 50X70 zentimetrokoak. Teknika librea. Kartelean derrigorrez testu hau agertu behar da: Martxoak 8: danok batera. Irabazleak 50.000 pezeta-ko saria jasoko du. Kartelak otsailaren 18a baino lehen, Udaletxeko Emakume Sailera bidali behar dira.

■ **BESAIDEREKIN  
MENDI ESKI IRTEERA**

Besaidek mendi eski trabesia antolatu du urtarrilaren 31 eta otsailaren baterako. Formigalera joango dira. Baldintzak: federatuta egotea eta mendi eskiko materiala, pioleta eta kranpoiak edukitzea. Izen ematea urtarrilaren 26an eta 27an egin behar da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte.

■ **ARRASATEKO  
ZIKLOTURISTEN OHARRA**

Bazkideen lizentziak berritzeko epea zabalik dago. Taldeko bazkide izan ez, baina zikloturista lizentzia nahi duenarendako prezioa 8.500 pezeta. Horretarako, *Tandem Ciclismo* dendara zuzendu. Lizentzia egin eta era berean taldeko bazkide izateko ordaindu behar-koa 11.500 pezeta.

■ **TOPAKETA  
PERTSONALAK**

Ikastaroa urtarrilaren 31n, zapatuan, hasiko da. Ordutegia: goizeko 10etatik 2ak arte. Ikastaroak norbera sakon ezagutzeko balioko du. Emaleak; Enkarna (79 88 53) eta Jose Luis (79 35 76). Klaseak Arrasate Yoga elkartearen emango dira,

Jose Luis Iñarra pasealekua 28, B.

■ **ALZHEIMERRA DUTEN  
GAISOEN ZAINKETARI  
BURUZKO IKASTAROA**


ICTEK antolatuta, alzheimerre duten gaisoen zainketari buruzko ikastaroa hasiko da otsailaren 2an. 20 orduko ikastaroa arratsaldeko 4etatik 6.30ak arte emango da. Zaintzaile eta senideei, osasun alorreko langileei eta etxez etxeko laguntzai-

leei dago zuzenduta ikastaroa. Izena eman edo informazio gehiagorako deitu 77 16 99 edo 77 17 15 zenbakietara.

■ **FAMILI ETA GIZARTE  
HEZIKETARAKO ZENTRO-  
AK ANTOLATUTAKO  
IKASTAROAK**

Autoestima ikastaroa: ostegunetan goizeko 9.30etatik 11ak arte. Autokontrol ikastaroa: ostegunetan arratsaldeko 4etatik 5.30ak arte.

Emalea: M<sup>o</sup> Carmen Zubillaga, psikologa-sexologa. Elikagaiak kontserbatzeko teknikak. Astelehen eta asteazkenean arratsaldeko 5etatik 7.30ak arte. Hasiera otsailaren 2an. Emalea: Iñaki Trueba. Sukaidaritza eta gozogintza ikastaroa: astelehenetan arratsaldeko 4etatik 6ak arte. Ikastaro hauetan izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira.



**TXALAPARTA IKASTAROA GAZTE BULEGOREN ESKUTIK**

Hastapen eta sakontze mailak urtarrilaren 30etik San Juanak arte. Klaseak ostiraletan emango dira arratsaldeko 8etatik aurrera, Musakolako saloian. Matrikula 2.000 pezeta. Izena emateko Gazte Bulegora zuzendu. Telefono zenbakia: 77 00 65.



## Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izenaren onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inisializ datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egjartzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

## GALDERA BAT EGIÑEZ

**1** 997ko abenduaren 23an erabaki zan, Donostiako Aldundiak ematen duen Anton Abbadia Saria zeinzentzat izan. Ain zuzen ere, Arrasateko "Arrasate Euskaldun Dezagun" Alkarteak jaso zun sari berezi hori.

Sari hori ondo emana izango da noski, baiña nere ezjakintasunean Alkarte orren izenarekin nago pentsakor. Ain zuzen ere, nere belarrietan min ematen bai du.

Ez al zan egokiagoa izango? "Arrasate Euskaldun Dezagun"-edo, "Euskaldun Dezagun Arrasate". Izenburu orren esanaiarekin izen geiago ere asmatu litezke: "Arrasateko Euskaldun Iraun Dezan", "Arrasate Euskaldun Izan Dedin", "Euskaldun Izan Dedin Arrasate" eta abar.

Izen orrek, euskaldun berri batek-edo, euskeraren senarik ez dun batek asmatua dala dirudi. Antzeko lanak eta idazkerak, maiz ikusten ditugu; badadukagu bai nun lan egina eta zer txukundua arranek-ezik!

*Txomin Garmendia*

## J. L. LOIDIRI ERANTZUNEZ

**E**z dut asmorik polemikan hasteko, ezta berba txarrik esateko ere. Jose Luis Loidi Larrañaga bergararrari baino ez diot erantzungo idatzi honen bidez. ARRASATEKO PRESSEKO azken zenbakian, *Irakurlea idazle* atalean, nire izena aipatu duzu, nire kontra eginez. Kasu baten berri ematen zenuen, eta sentsibilitate falta eta arduragabekeriako jarrerak izan nituela esaten zenuen. Beste iruzkin edo komentariorik ere egin duzu.

Egia bada ere ez nizula zerbitzurik eman Arrasateko Kontsumitzaileen Informazio Udal Bulegoan, ez duzu esan zein arrazoi eman nizun hori egiteko, hau da, legezkoak, lanekoak nahiz arrazoi pertsonalak eman nizkizun halako jarrera izateko. Besteak beste, berdindolarik zein garrantzi duen kasuak, garbi esan nizun udal zerbitzu bat zela eta zu ez zinela gure herrian bizi, eta gainera, zure gaia ez zegoela lotuta Arrasateko zerbitzu batekin. Nik garbi utzi nizun ez nengoela prest beste udalerrri edo beste erakunde batzueri dagozkien lanak egiteko, batez ere, Bergarako Udalak Kontsumitzaileen Informazioko udal bulegoa itxi zuenetik.

Esan gabe utzi duzu desafio egin zenidala honela: gaia planteatzeko modua aldatuz gero, behartuta egongo nintzela zure eskaerari erantzuten.

Hori lortu ez eta kexak,

deskalkifikazioak, mehatxuak eta mendekua erabili dituzu, pentsatu barik zein kalte egin didazun, arrazoi barik.

Bukatzeko, iradokizun haxe egiten dizut, sindikatu ezagun baten arduraduna zaren ez, bere eskubideak defendatzen dituen langile baten kontra jo beharrean, ahalegin horixe egin dezazula Bergara eta Arrasateko Kontsumitzaileen Informazioko udal bulegoak moduko zerbitzuak eta lanpostuak desgertu ez daitezen, izan ere, ez-lako oposizio barik itxi dituzte atea zerbitzu horiek.

*Antton Fernandez*

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**

79 42 22


*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82



# Zer irizten diozu tratu txarren arazoari? Zelan konpondu?



**Antonio Sanchez**  
(40 urte)  
Langilea

Txarto. Ez dut inongo kasu-  
ren berri, baina komunikabide-  
etan egunero ari gara entzuten.  
Arazoa konpontzeko legeak  
aldatu beharko lituzkete.



**Inma Romero**  
(52 urte)  
Etxekoandrea

Neurri urgenteak hartu  
behar dira. Arazoa larria da eta  
salaketa jartzera joaten direnei  
arreta jarri behar zaie. Horre-  
lako kasuak salatu behar dira.



**Aitziber Arregi**  
(25 urte)  
Langilea

Oso txarto. Legea gaur-  
kotu eta jendea kontzientzia-  
tzea pentsetan zait bide one-  
na.



**Mari Carmen Renda**  
(19 urte)  
Langabetua

Txartu txarrak ematen ibil-  
tzen diren gizonei barrabilak  
moztea onena. Kasuak salatu  
egin behar dira eta horretara-  
ko badaude toki bereziak.



**Igor San Juan**  
(27 urte)  
Langabetua

Tratu txarrak betidanik  
eman dira, baina orain modan  
daude. Lege arazoa baino,  
heziketa arazoa da. Dena dela,  
legea ere konponbiderako tres-  
na izan daiteke.



**Mari Carmen Aranzabal**  
(67 urte)  
Etxekoandrea

Oso arazo larria da eta  
tamalez gaur egun modan  
dago. Irtenbidearea giltza hezi-  
ketan dagoela uste dut. Kon-  
tzientziatu egin behar du jen-  
deak.



**Juan Mari Aranburuzabala**  
(53 urte)  
Langilea

Langabezia handia dago eta  
horrek badu eragina. Konpon-  
bidea heziketan egon daiteke eta  
baita egoera ekonomikoan ere;  
hobea balitz, ez lirateke horre-  
lako kasuak gertatuko.



**Feliciano Sebastian**  
(65 urte)  
Jubilatua

Txarto pentsetan zait, bai-  
na ez daukat iritzirik horren  
inguruan. Konponbideren bat  
egongo da, baina ez dakit zein  
izan daitekeen.

**Spek**  
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

**Nekaturik edo hankako minez zabiltz?**

- Neurri egindako plantilla bereziak
- Lanerako zuekoak
- Oinetako erosoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

ORDUTEGIA  
Asteartetik ostiralera: 9.30-19.30  
Larunbatetan: 9.00-16.00

**JADE**  
ILEAPAINDEGIA

Maalako Arrabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 77 16 31  
ZABALDU BERRIAI



USTEAK USTE

Lana dela eta

Iruñeako langileek ez dute zapatutan lanik egin nahi. Ezetza eman diote asteko seigarren egunean Volkswagen autoak egiteari. Eta jakina, multinazionalari ez zaio langileen erabakia gustatu. Niri, berriz, gustatu egin zait eta azalduko dizuet zergatik.

Batetik, astean bost egunez lan egitea nahikoa delako eta jai egunak beharrezkoak direlako. Bigarrenik, langabezia daudene-kiko elkertasuna adierazten duelako. Hainbeste lan baldin badago, zergatik ez langabezia daudenei aukera eman?

Lehenago egunean komentario bat egin zidan inguruko lantegi batean lanean ari den batek. Nire lagun honek esan zidanez, ordu extra mordo sartzen da bera lanean ari den tokian. "Ordu horiek langabezia daudeneztat izango balira inor gutxi egongo litzateke langabezia" bota zidan.

Lan barik daudene-kin akordatu naiz, beharbada niri ere halabeharrezko "oporrak" datozkidalako. Agur eta ez lan askorik egin.

Maria Agirre



AUKEA sariak norendako?

Fernando Aguriondo

1997ko urteari dagozkion AUKEA sariak norendako diren finkatu behar zela eta, joan den astean bilera egin genuen Musakolako kiroldegian. Batzarrean izan ginen AUKEAko hiru ordezkari eta bi kazetari. Nahiz eta komunikabide guztietako ordezkariak deituta egon, bi baino ez ziren azaldu. Beraz, bertan bildutakoak saria zein kirolarik merezi duten zehazten hasi ginen. Beti moduan lehenik proposamenak egin ziren eta ondoren botazioa etorri zen. Botazioko emaitzak eskuartearen, hona hemen AUKEAko sariak zeintzundako izango diren.

Banakako saria Enrike Kabidetari ematea erabaki da. Kabiketa maratoilaria da, eta iaiz Euskadiko eta Espainiako

txapelduna izan zen. Korrikalari bikaina da Kabiketa eta berak jasoko du saria baina finalista geratu zirenen izenak ere jakinaraziko ditut: Jonatan Perez atleta, Mari Jose Gil korrikalaria, Itziar Zabala judoka, Ane Lopez de Bergara igerilaria, Isidor Ugarte karateka eta Jorge Fernandez saskibaloi jokalaria.

Taldekatiko saria, berriz, Arrasate Atletiko Taldearen

esku geratuko da. Zergatik? Izugarritzko meritua dutelako. Pista egokiak eduki ez arren, emaitza onak lortzen ari dira eta merezi dute errekonozimendua. Finalista geratu zirenak Besaide Mendizale Elkar-tea eta Saioa Karate Eskola izan ziren. Azkenik, sari berezia Justi Arenazari emango diogu. Justi orain Iturbide Egoitzan dago bizitzen eta gazte denboran punta punta-ko raketista izan zen. (Gaur egun frontenisa deitzen diogu). Justik profesional mailan jokatu zuen, eta bihotz bihotzez eman nahi diogu saria.

Bukatzeke esan, astelehenean zehaztuko dugula sari banaketa noiz egin. Hori bai, otsailaren hasieran izango da seguruen.

Fernando Aguriondo. AUKEAko kirol teknikaria

“Joan den astean aukeratu genuen zeinendako izango diren 97ko AUKEA sariak”



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 79 22 55 79 14 25

JUBAR ATEAK. S.L.

- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataite poligonoa, 18 • ARRASATE Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17



astea bi hitzetan

■ **Besaidek batzar orokorra egin zuen**

Joan den ostiralean urteko batzar orokorra egin zuen Besaide Mendizaleen Elkar-teak. Iazko urteari dagokio-nez, urte ona izan zela azpi-marratu zuten. 20 milioikoa izan zen 97ko aurrekontua eta aurtengoa ere antzerkoa izango dela uste dute.

Ekintzei dagokienez, beti egiten dituztenei eutsiko dietela jakinarazi zen. Zuzendaritza Batzordeko kideak iazkoak izango dira.

■ **Neska gaztea istripuz hil zen**

Nuria Zabaleta Ojangu-ren arrasatearra astelehene-an hil zen 26 urte zituela. Nuriak istripua izan zuen joan den ostiralean Berga-rako sahesbidean. Arrasa-tearrak gidatzen zuen auto-ak eta beste batek elkar jo-

tzean gertatu zen istripua.

Hileta elizkizunak aste-artearen egin ziren.

■ **Jende asko Karra Elejalderen emanaldian**

Joan den igandean bete egin zen Amaia antzokia, eta izan zen Karra Elejalderen antzezlan ikusteko sarrera barik geratu zenik ere. "La Kabra Tira Al Monte" obrak ikusleen barreak eragin zituen, eta jendea pozik irten zen antzokitik.

■ **Venezuelako 12 irakasle Eskola Politeknikora**

Asteartean ongi etorria egin zitzaien Venezuelatik etorritako 12 irakasleei, eta horrela, inauguratuta gera-tu zen irakasle horiendako Eskola Politeknikoak zuden-duko duen formazio tekni-korako ikastaroa.

Venezuelako La Victo-ria hirian formazio tekniko-rako ikastetxe bat ari dira eraikitzen, eta gai horren inguruan dagoen material pedagogikoa bildu eta esko-lak zelan eman ikastera eto-rriri dira Venezuelako lagu-nak.

Planak Europear Bata-sunaren eta Gipuzkoako Diputazioaren babesa du, eta aurrekontu orokorra 2.000 milioikoa da. Bi era-kunde horietatik etorritako ordezkariak ere parte hartu zuten inaugurazio ekital-dian.

Venezuelako irakasleak ekainera arte egongo dira Euskal Herrian, eta ondoren gainontzeko irakasleei hemen ikasi eta ikusitakoa kontatu beharko diete. Ikas-tetxean 16 eta 20 urte bitar-teko 400 ikaslek izango dute ikasteko aukera.



*Batez ere Josemari Velez de Mendizabalen borondate ona azpimarratu-ko nuke nik. Bera izan da factotum-a. Arrasateko alkateari, Xabier Zubizarre-tari, eskutitz polita idatzi zion, eta gero alkate berriari ere bai. Liburuan, jakina, gauza asko falta dira. Velez de Mendizabalek ere badio hori, hitzaurrean. Nik esan diot horiek ez argitaratzeko. (...)*

*Badakizu, etxeko trapu zaharrak etxean garbitu behar dira. Zertarako esan gauza horiek? Onik ez zuen ekarriko horrek. Lehen ere ohituta gaude gauza asko isiltzera. Egin ditudan lanak eta liburuak ezin ahal izango nituen egin isildu ez banintz. Isilik eta bakean hobeto egiten da lan. Nik zailtasunak izan ditut bidean, garai bateko giroaren ondorioz batez ere. Baina zintzo jarraitu dut. Batzuek beren bizitza eman dute, eta horiengan pentsatzeak indarra ematen dit. Barrutik bizi-bizi egon naiz beti eta, isilpean, aurrera egin dut. Nik esan nuen nik ere neure bizitza emango nuela, eta zintzo jarraitu dut. Beste batzuk kolpetik dena batera eman zuten bezala, ni poliki-poliki ari naiz ematen.*

**GAIZKA BARANDIARAN**

*Euskaldunon Egunkaria.*  
1998ko urtarrilak 20



**EUDIMAREN BATZARRA EZ ZEN BUKATU**

Zuzendaritza Batzordea-ren osaketaren inguruan ados jarri ez eta bukatu barik geratu zen EUDIMAK joan den zapatuan egin zuen bilera. Otsailaren 7an beste bilera bat egingo dute berriro ere Arrasaten. Arrasateko Antimilitaristak kanpoan bildu ziren bilerak iraun zuen bitartean.

**Pavimentos AGR AROZTEGIA**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20



Juan Carlos Guerra enparantza  
Tfnoa: 79 18 39  
ARRASATE

Mitarte, 18  
Tfnoa: 79 53 51  
ARETXABALETA



# Chernobil Lagunak elkartea sortu dute Deba Garaiko hainbat lagunek

Uda partean Chernobileko neska-mutilen bat euren etxean jaso duten familiartekoak bildu eta Chernobil Lagunak elkartea sortzea erabaki dute. Orain arte, Deustun dagoen elkartearen bidez egiten zituzten beharrezko tramiteak, baina harremanetarako urruti geratzen zaiela eta, Deba Garaiko lagun batzuk elkartea sortzea erabaki dute. Elkartea oraindik ez da ofizialki aurkeztu; otsailean daukate aurkezpena egiteko asmoa.

Elkartearen helburua Chernobileko umeei denboraldi batez hona etortzeko



Argazkian, elkarteko partaideak eta Chernobileko neskatilak.

aukera ematea da. Joan zen udan hamabi neska-mutil eto-

rri ziren Deba Garaiko herri-  
ren batera. Arrasatera, zehaz-

ki, hiru etorri ziren. Hurrengo udan, berriz, kopuru hori handitu egin nahi dute eta horregatik, herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina berezia egingo dute. Euren asmoa udara honetan 30 neska-mutil ekartzea da. Chernobileko umeren bat etxean jaso dutenek esaten dutenez, Chernobilekoei oso ondo egiten die hona etortzeak.

Asmoa gauzatzeko dirua ere beharko dutenez, ekintza bereziak ere antolatuko dituzte. Adibidez, umeendako jaialdia antolatu nahi dute Arrasaten.

## Zapatuan bilera egingo da txabolen jabeekin

Santa Teresa eta Agerre kaleko bizilagunak haserre azaldu ziren euren etxeen atzealdean dauden txabolak direla eta. Arazoari irtenbidea emateko, zapatuan bilera egingo

da txabolen jabeekin. Bilera Udaletxean ingurugiroaz arduratzen den zinegotziak deitu du, Ignacio Jimenok. Batzarrak Santamainako alkatetzan egingo da goizeko 10etan.

## Taberna eta jatetxeak lehenago itxi beharko dira

Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri du taberna eta jatetxeendako ordutegi berria, eta orain Udalak establezimenduei jakitera eman beharko die.

Jaurlaritzaren dekretua

errekurritu ondoren, araudi berria etetea lortu zuten ostalariak. Madrileko diktamena falta zitzaion araudiari baina behin hori lortuta, berriro ere indarrean sartu da.



### Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# Arrasaten 126 familia bizi dira pobrezia laguntzari esker

Joan den urtean 126 familik jaso zuten pobrezia laguntza Arrasaten. Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak ematen duten laguntza, eskaera egiten duen pertsona bakoitzaren egoeraren arabera banatzen da.

Iaz guztira 29 milioi pasatxo behar izan ziren pobrezia programan sartutakoei laguntza emateko. 25 miloi eta erdi Foru Aldundiak eman zituen, beraz, Udalak ia lau milioi ipini behar izan zituen. Orain arte Aldundiaren laguntza nahikoa izan da eskaerei erantzuteko, baina iaz Udalak dirua jarri behar izan zuen lehenengo aldiz.

Bi dirulaguntza moeta



Udalak eta Foru Aldundiak ematen dute pobrezia laguntza.

eskaintzen dira. Alde batetik pertsona behartsuenei ematen zaiena dago. Hau Foru Aldundiak ematen du eta lehentasuneko beharrak asetzeko da,

hau da, jateko elikagaiak ematen dira. Bigarren laguntza, Udalak ematen du eta errentak eta etxeko mantenimendua ordaintzeko ematen dira.

Laguntzak urte osorako ematen dira.

Batez ere langabeziaren eraginez eskatzen da pobrezia laguntza, baina emakumeen kasuan banatuak daudelako edo alargunak edo ezkongabeak direlako.

Bestalde, etxez etxeko laguntza zerbitzua ere eskaintzen du Udalak eta iaz 163 lagunek jaso zuten laguntza hori. Zerbitzuaren onuradun gehienak emakumeak izan ziren eta heren bat, etxean bakarrik bizi diren pertsona nagusiak. Hirugaren adineko- edo elbarrituei dago zuzenduta laguntza hau, eta guzti horiei langile bat bidaltzen zaie etxera.

## Eskualdeko farmazilariak ados 24 orduz zabalik egongo den farmaziarekin

Eskualdeko farmazilariak ados jartzea lortu, eta Arrasaten 24 orduko farmazia bat zabaltzearen alde azaldu dira. Farmazia horrek eskualde osoari eskainiko lioke zerbitzua, eta gainera, guardiako farmazien lana beteko luke. Joan den astean egin-

dako bileretan asmo horrekiko desadostasuna azaldu zuten farmazilari batzuk, baina astean egindako bileran akordioa lortu dute.

Proposamen horrekin, Eusko Jaurlaritzak 98an kale-ratutako araudiari aurre egin nahi diote farmazilariak.

Araudi horren arabera, Arrasatek eta Bergarak ezin dute guardiako farmaziak konpartitu, beraz, herri bakoitzak guardiako farmazia bat eduki behar du.

Orain, bailarako farmazilariak Eusko Jaurlaritzan aurkeztuko dute euren proposa-

mena. Farmazilariak baikor daude eta Jaurlaritzak baiezkotzea emango diela uste dute. Erantzuna jaso bitartean, 24 orduko farmazia martxan jartzeko proposamena landuko dute. Otsaila edo martxorako, eskualde osorako farmazia bat zabaltzea aurreikusten dute.



**KONTRATAK**  
**IRVROK S.L.**  
**ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 77 09 92 / Faxe: 79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 78 21 82  
OÑATI

**UGARTE**

**Industri  
hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412



## Plenoa egingo da astelehen goizean

Alkateak plenoa deitu du asteleheneko.

Goizeko 9etan hasiko den plenoa azkar bukatuko dela uste da, izan ere, gai ordenean zazpi puntu besterik ez daude eta guztiak arazo barik onartuko direla espero da. Aipagarrienetarikoa, A-20ko plan urbanistikoari buruzko aldaketa proposatzen duen puntua litzateke. Aurrez, A-20ko partzelen gutxienezko azalera 1.000m<sup>2</sup>koa izatea onartu zen. Asteleheneko plenoan, berriz, gutxieneko partzela 1.000m<sup>2</sup>tik 400m<sup>2</sup>ra pasatzea bozkatuko da.

Bestalde, oraingo plenoan ere ez da bake epailerik izendatuko.



Altzariak, arropak eta elektratresnak batu nahi dituzte Traperos de Emausekoek.

## Traperos de Emaus-en proiektua

# Traste handiak birziklatzeko enpresa Deba Garaian

Deba Garaian enpresa bat zabaltzeko asmoa erakutsi zuen orain dela urtebete inguru Traperos de Emaus birziklapen enpresak. Joan den azaroan, berriz, Mankomunitateko presidentea den Jose Mari Loitik azaldu zuen, enpresa zabaltzeko eragina izango zuela gaur egun tamaina handiko hondakinak jasotzen diharduten langileengan. Presidentearen adierazpenei erantzunez, Mankomunitateko enpresa komiteak eragin hori oso txikia izango litzatekela azaldu du idatzi baten bidez. Gaur egun tamaina handiko hondakinak hiru langile jasotzen dituzte, eta langile horiek hileru hiru egun zuzentzen dituzte eginbehar horretarako, beraz, 21 ordu bakarrik sartzen dituzte hileru. Enpresa komitearen ustez, posible litzateke ordu horietan beste lan batzuk egin eta Traperos de Emaus-i enpre-

sa zabaltzeko aukera ematea.

### BESTEEN IKUSPUNTUA

Traperos de Emausi eta Mankomunitateko presidenteari gai horren inguruan galdeztzerakoan, bata bestearen zain dagoela pentsa daiteke.

Mankomunitateko presidentek adierazi du ona dela lanpostuak sor ditzaketen enpresen berri jasotzea. Dena den, Loitiren esanetan, oraindik legezko proiektuaren zain dago Mankomunitatea. Proiektua behar den bezala aurkeztu arte, ezin da horren inguruko erabakirik hartu Loitiren arabera.

Traperos de Emauseko arduradunak, berriz, Mankomunitatearen erantzuna falta zaiela adierazi du. Bere esanetan, momentu honetan Mankomunitateak du traste handiak jasotzeko konpetentzia, eta beraz, ardura hori eurei ematen ez zaien bitar-

tean, ezin dira hondakin horiek batzen hasi. Gainera, enpresa hori sortzeko administrazioaren laguntzak behar direla, eta Mankomunitateari enpresa kokatzeko toki handi bat eskatu dietela gogoratu du. Traperos-eko arduradunak gogoratu duenez, aspaldi luzatu zion Loitiri Donostian duten enpresa bisitatzerako joateko gonbitea, baina oraindik ez da azaldu ere egin.

Traperos de Emausen asmoa, erabiltzen ez diren altzariak, elektratresnak eta jantziak batu, konpondu eta berriro salgai jartzea da. Enpresa horrek hainbat languni emango lieke lana.

Gipuzkoari dagokionez, une honetan Donostialdean dago horrelako enpresa bat eta 20 lagunek egiten dute lan. Gutxi barru, bestalde, beste enpresa bat zabalduko dute Irunen.

### Jaiotzak

- Ander Sagasta Beltran de Guevara. Urtarrilaren 4ean.
- Jon Lizarraga Aranzabal. 5ean.
- Ane Elorza Besga. 6an.
- Maider Zubillaga Murillo. 7an.
- Eider Iñurrieta Ibarrondo. 8an.
- Mikel Pierre Retegi Schiettekatte. 8an.
- Sergio Casares Duque. 13an.
- Jone Palacios Garcia. 13an.

### Hildakoak

- Valentina Marban Gonzalez. 89 urte. Urtarrilaren 10ean.
- Lorenzo Heriz Mondragon. 74 urte. Urtarrilaren 10ean.
- Pascuala Lizarralde Otaduy. 87 urte. 11n.
- Victoriano Madina Igarzabal. 93 urte. 11n.
- Maria Agirre Bengoa. 86 urte. 12an.



ARRASATEKO ERDU AEK  
EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIAK, EGA eta  
ALFABETATZE

Matrikula epea zabalik  
otsailaren 9ra arte  
Beka sistema



Informazioa eta matrikula:  
ERDU AEK EUSKALTEGIA

Garibai kalea 14, 3

(Sindikatu etxea)

Tel.: 77 03 69

Udalaren laguntzaz



*Izena eman*

EZ UTZI GEURE GARRA  
ITZALTZEN!



EUSKARA  
GALDUZ GERO  
AKABO  
GURE HERRIA

*aek*



## Lan eskaintzak

ATB • Arrasate Telebista

### Bi teknikari

*Baldintzak*

- Euskara ondo menderatzea
- Ikus-entzunezkoen ezagupena
- Gidatzeko karneta eta autoa

*Lanpostuen betebeharrak*

- Astebukaera eta jaiegunetan ATBko teknikari lana

**Kurrikulum-ak aurkezteko epea**

**URTARRILAREN 30ean bukatuko da**

ARKO • Arrasate Komunikabideak

### Gerentea

*Ezinbesteko baldintza*

- Euskara ondo menperatzea

*Baloratuko direnak*

- Administrazio edoeta ekonomi mailan titulazio eta esperientzia
- Komunikabide munduaren ezagupena
- Lantaldeak antolatze eta zuzentzeko gaitasuna
- Harremanetarako erraztasuna
- Komertzialgintzan esperientzia

**Kurrikulum-ak aurkezteko epea**

**OTSAILAREN 12an bukatuko da**

**Kurrikulumak ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira**

Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)


Tel.: 79 02 26



## BI MUSU, ASIER!

Domekan urte bat gehiago beteko duzula eta, jaso itzazu zure neska lagunaren eta kuadrilakoen zorionik beroenak. Orain arte ondo baino hobeto ibili zarela ikusten da argazkian.

Dena den, domekan musu gehiago eta hobeak, seguru! Ondo pasatu eta zorionak!



## JUBILATUEN TABERNARIA

Guillermo Carmona 27 urteko gaztea Santamainako jubilatuen etxeko tabernaren arduradun berria da. 97aren azken

egunetan hasi zen lanean tabernan eta orduetik aurrera berak ateratzen ditu txikitoak jubilatuen etxean.



## GU BE BAI LOGOTIPOA

Goio Aranak, gure aldirikoko diseinatzaileak, Euskara Hitzarmenaren logotipo lehiaketa irabazi du. *Gu be bai* lema erabiliz, Euskararen Hitzarmena sinbolizatzen duen lora bat aukeratu du. Lora batek ederra izateko petalo guztiak behar dituen bezala, euskarak denon lana behar du aurrera egiteko.





## ARRASATEN ERE DANBORRADA!

San Viator txikiko ikasleek primeran pasatu zuten astearte arratsaldean. Donostia zertxobait urruti geratzen zaigula eta, bertaraino joateko aukerarik izan ez genuenontzat, danborrada ederra eskaini ziguten gaztetxo hauek. Hau da hau, danborrero harrobia!

## IZENAK

### Iñaki Garitano

Arrasateko Udaletxean hasi da lanean. 31 urteko bergararra zerbitzu sozialetako arduraduna izango da, eta Iturbide egoitzaren gestioarekin arduratuko da besteak beste. Iñigo zuzenbidean lizentziatua da eta orain arte idazkari lanak bete ditu Antzuolako Udaletxean.



### Rosa Mondragon

Tu-Lankideak aldizkarian hasi da lanean koiaboratzaile modura. Rosak 30 urte ditu eta Aramaion bizi da. Aurrez ARRASATE PRESSEN eta Aretxagazetan egin du lan. Arrasateko Udaltxean emakume saileko teknikaria ere izan zen.



## PARROKIAK DENBORAN "ATZERUNTZ"

egingo du berriztapen obrekin. Parrokiak aro modernoaren aurrerapenak aprobetxatuko baditu ere, XIV. mendean zuen itxura hartuko du. Horrela, lur azpian berogailu sistema ipini duten arren, zorua harrizkoa izango da, erdi aroan bezala. Bestalde, parrokiako beirateak eta Pablo Uranga pintore arrasatearrak hormetan egindako margoak berriztatzen ari dira momentu honetan. Bestalde, 300 urtez elizaren albo bietan erretauluek estali dituzten beirateak ikusi ahal izango ditugu.

### MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29  
Renault Asisten.: 900 365 000  
24 orduko zerbitzua 365 egunetan


# MECA



# ALTZARIAK • DEKORAZIOA

## UGARTE

### ARROZTEGIA




San Juan, 1  
(Gasolindegiaaren parean)  
BERGARA  
Tel. eta Faxe: 76 54 91

- Leiho termoakustikoak
- Armairu enpotratuak
- Ateak
- Altzariak



# Indarkeria sexistak badu irtenbiderik

Asko idatzi, luze hitz egin eta barra-barra eztabaidatu da azken boladan emakumeek jasaten ditugun tratu txarren inguruan. Telebista eta egunkariak, senar haserre-biolentoek euren emazteei eragindako ubeldurak eta zauriak erakutsi dizkigute. Auzokideen begiradapean, atarte batetik ateratzen duten emakume baten zerraldoa erakutsi digute. Morboa? Salaketa? Zaila da bien arteko muga ikustezina ondo definitzea. Gai honetan lan egiten duten profesionalen iritziz arazoari buelta eman eta zergatien azterketa eta irtenbideetara zuzendu beharoko genuke gure indarra.



Tratu txarrak gizarteko maila eta adin guztietan jazotzen dira.

**S**ei milioi emakume hiltzen da munduan urtero tratu txarren ondorioz. Konparaketak eginez gero, munduko gatazka politiko batzuetan baino hildako gehiago. Olatz Etxabe gizarte zerbitzuetako teknikaria eta Maite Barreña emakume sailekoaren esanetan, ezagutzen diren kasuak izeberg-aren punta baino ez dira.

## ARRASATEKO BABESETXEA

Arrasateko gizarte zerbitzuek eta emakume sailak laguntza ekonomikoa, juridikoa eta psikologikoa eskaintzen diete tratu txarrak salatzen dituzten emakumeei. 94an, larrialdie-

tarako babesetxea jarri zen martxan eta ordutik emakumeek bakarrik erabili dute.

“Arrasaten, leku guztietan bezala, oso emakume gutxik salatzen ditu tratu txarrak, bai-

na horrek ez du esan nahi eraso gutxi gertatzen denik” esaten du Maitek. Orain arte





Familiatik hasita, gizarte osoaren sentsibilizazioa eta inplikazioa beharrezkoa dira indarkeria sexistarekin bukatzeko.

babesetxea kanpotarrek erabili dute bakarrik. "Askotan ona izaten da herritik kanpora irte-  
tea- azaldu du Olatzek- alde batetik gizonarengandik babesteko, eta bestetik, jendearen aurrean tratatu txarrak jasan dituzula aitortzea oso zaila delako". Babesetxea erabiltzeko baldintza bat bete behar du emakumeak: bere egoera gairatzeko zerbait egin behar du.

Normalean eraso fisikoak jasan dituzten emakumeak eskatzen dute laguntza, baina azken urteotan psikologikoki txarto tratatuak izan direnak ere bere egoeraz jabetzen hasi dira. "Azken urteetan, gero eta bikote gehiago banatzen da emakumeak ezin duelako mezprezu psikologikoa gehiago jasan".

Arrasateko zerbitzuak gizonentzako tratamendu psikologikoa ere eskaintzen du; dena den, "guk ez dugu sekula erabili- esan digu Olatzek-

**94an larrialdietarako babesetxea jarri zen martxan Arrasaten eta ordutik tratatu txarrak jasan dituzten emakumeek bakarrik erabili dute.**



**Ez da erreza tratatu txarren gatibutzatik askatzea. Emakumeak lotura ekonomiko eta afektiboak apurtu behar ditu, beldurra alde batera utzi, eta askotan seme-alabak daude tartean. Baina oso garrantzitsua da argi uztea egoeratik irteteko laguntza egon badagoela.**

zeren, nork ikusten du bere burua erasotzaitzat?".

#### **GIZARTE, FAMILIA ETA LEGEAREN BABESA**

Indarkeriaren aurrean, emakumea bakarrik eta babes barik dagoela ematen du. Kronika beltzek jasotako kasuetan, sarri irakurri izan dugu auzokide batek (egoera betidanik ezagutu izan duenaren konplizitateaz) esandakoa: "Behin baino gehiagotan salatu izan du gizona komisaldegian eta orain hilda dago". Familiak zein gizarteak tratatu txarren aurrean hartzen duten jarrera oso arriskutsua da Maiteren ustez. "Beti esan da etxe barruan gertatzen dena intimoa dela, ezin dela inor sartu. Eta zer gertatzen da orduan? Bada auzokide eta familiarrek tratatu txarren berri izan arren, begiak itxi eta ez dutela ezer egiten". Komunikabideek ere emakume erasotzaren estere-



## AMAIA VAZQUEZ, PSIKOLOGOA

“Tratu txarrak ematen dituzten pertsona gehienek, tratu txarrak jaso zituzten txikitari”

**Gizon erasotzaileek badakite ez dutela gizartearen onospena eta, hala ere, indarkeria erabiltzen dute. Baina gaur egun tratu txarren beste perzeptio bat dago Amaiaren ustez: arazo pertsonala izateaz gain, arazo soziala eta patologia ere bada.**

### - Zergatik gertatzen dira erasoak?

- Gizonei asko kostatzen zaie onartzea emakumeok arlo publiko zein pribatuan pareko statusa lortu nahi dugula. Horrek arazoak sortzen dizkie gaurko emakumeekin erlazionatzeko. Harremanetarako ezintasuna, indarkeriarantz bideratzen dute. Topiko batzuk ere apurtu egin behar ditugu, hala nola, gazteek ikuspegi zabalagoa dutenarena, edota tratu txarrak talde marginatueta bakarrik gertatzen direnarena. Tratu txarrak gizarteko maila eta adin guztietan jazotzen dira.



### - Esan daiteke erasotzailea gizon gaixoa dela?

- Ez, baina bai normalean perfil psikologiko zehatz bat duela. Autoestima gutxiko gizona da, oso ahula psikolo-

gikoki eta afektiboki. Indarraren bidez gogorra dela erakutsi nahi du.

### - Zein da erasotzaile eta erasotuek behar duten laguntza?

- Emakumeek premiazkoa dute laguntza ekonomikoa etxetik lehenbailehen aldegiteko. Gero laguntza psikologikoa legoke, luzaroan jasandako egoera gaintitu ahal izateko. Gizona isolatu egin behar da emakumea babesteko, baina ez kartzelan. Barruan elikatu dezakeen amorruek emakumea akabatzen bultzatzen dezake; beraz, laguntza psikologikoa eman behar zaio berehala.

### - Erasotzaileak onartzen du laguntza psikologikoa behar duela?

- Gaur egun alkoholiko batek askoz ere errezago onartzen du alkoholarekin arazoak dituela. Zergatik? Gizarte mailan kontzientziario handia dagoelako. Orain arte tratu txarrak ez dira gizartearen arazotzat hartu. Prebentzio eta sentsibilizazio kanpainekin gizartearen ardura piztuz gero, akaso erasotzaileak arazo bat duela onartuko du. Gainera tratu txarrak ematen dituzten pertsona gehienek tratu txarrak jaso zituzten txikitari. Erasotzaileak berriro hezitu eta giza baloreak berdefinitu behar ditugu denon artean.

otipoa sortu dute “maila ertain-behekoa, jakintza kultural gutxikoa eta nagusia. Eta ez da horrela. Tratu txarrak edozein emakumek jaso ditzake, gazte zein aberats, pobre zein langile, kultura handiko nahiz txikiko”.

Emakumeek luzaroan aguantatzen dute egoera. Askok tratu txarrak justifikatu egiten dituzte merezitakoak direla pentsatuz, senarrak edan egiten duelako edo gizonak *genio bizia* duelako. Baina emakumearen autoestima gutxiaren atzean sakoneko ara-

zoa ezkututzen da. “Barnertutako faktore kulturalak goitik behera baldintzatzen dituzte portaerak. Heziketak sexu batek besteak baino botere gehiago duela azpimarratzen du eta botere horren ezarpena/erabiltzea da indarkeria”.

### BADAGO ZER EGIN

Ez da erreza tratu txarren gaitzirik askatzea. Emakumeak lotura ekonomikoa eta afektiboak apurtu behar ditu, beldurra alde batera utzi, eta askotan seme-alabak daude tarte-

an. Baina oso garrantzitsua da argi uztea laguntza egon bada goela. “Askori beldurra ematen dio kale gorrian gelditzeak, baina, laguntzak nahiko eskaxak badira ere, etxetik aldegin eta bizimodu berri bati ekiteko nahikoa izaten dira. Ez dago zertan egoera jasan beharrik. Badaude zulotik irteteko bideak”.

Gizonari, bestalde, kasu gutxitan ezartzen zaio kartzela zigorra. Kartzelarena, hala ere, ez da soluziobidea teknikari bien ustetan. “Kartzelan egondako bortxatzaile askok

delitu bera berregiten du. Hila-bete batzuk kartzelan egoteak ez du ezer konpontzen. Horrek kartzelaratutakoaren amorrua handitu besterik ez du egiten. Oso ohikoa da kartzelan egon denak irtetea andrea atzera egurtzea”.

Sexismoarekin bukatzeko, hezkuntza berri bat bultzatzea beharrezkoa da. Erasotu eta erasotzaileak epaituko ez duena eta indarkeria sexista denak konpondu beharreko arazo bihurtuko duena. ■

Marian Porcel



Futbol jokalaria

## ARITZ ARABIOURRUTIA

*“Preferentean baino gorago jokatzeko joan naiz Harora”*

— Haroko jokalaria berria zara. Zelan izan da fitxaketa?

— Urtarrilaren 3an nire aitarekin jarri ziren harremanetan. Gero, Mondrak Pasaia- ren kontra jokatuako partidura etorri ziren eta joan zen astean kontratua sinatu nuen. Mailaz aldatzeko gogoia nuelako joan naiz.

— Hori izan da arrazoi bakarra?

— Bai, hirugarren mailan jokatzeko gogoia nuen eta horregatik utzi dut Mondra. Diru kontuak ez dute zerikusirik izan. Gainera, Mondran gaur arte gustora egon naiz.

— Hirugarren mailan nola ikusten duzu zeure burua?

— Errioxako maila ez da hemengo bezalako. Beraz, ondo moldatuko naizelakoan nago. Harok talde sendoa dauka eta helburua 2. mailara igotzea denez, horretan lagunduko diet. Helburu hori lortzeko Harok fitxaketa batzuk egin ditu. Nik dena dela, ez dut bankiloan egoteko beldurrik. Gogor eta gogoz lan egiten badut, hasierako hamaika-koan toki bat izan-

go dudalakoan nago.

— Han zer espero duzu topatzea?

— Joko oneko taldea eta jokalarien artean giro jatorra.

— Mondrak igarriko du zure hutsunea?

— Nire postuan jokatzeko jokalaria egon badaude. Horregatik, uste dut nire hutsunea ez dela igarriko.

— Mondran gazte-gazte sartu zinen, zeintzuk dira oroitzapen onenak?

— Egin ditudan lagunak eta Gipuzkoako selekziora joateko egin zidaten deialdia.

— Zure asmoak?

— Haro taldean denboraldi ona egitea eta gol asko sartzea.

— Pena apur batekin zoaz?

— Pena beti izaten da. Gaur arte, Arrasateko taldean ondo ibili naiz eta lagun handiak ditut. Hala ere, herrian lagun horiekin egoteko aukera izango dut ez noa hain urruti eta.



## FUTBOLA Mikel Vicenterentzat dirua



Mondrako emakumezko taldeak Oiartzunen kontra neurtuko ditu indar-  
rrak zapatuan, hilak 24,

arratsaldeko 4retan Atxabalpen. Partidu horretan ateratzen den dirua Mikel Vicenteri zuzenduko zaio. Mikelek Oñaitik Bergarako bidean istripu larria izan zuen eta orain Aita Menni ospitalean dago. Bergarako gazte honi elkartasuna adierazteko asmoz antolatu du ekintza Mondrak. Ahalik eta diru gehien lortzeko, herritarrek animatu gura dituzte zapatu arratsaldean Atxabalpera joan daitezen.

Preferente mailako Mondrak Ordizia taldea izango du aurrez aurre domekan arratsaldeko 4retan. Itxuraz samur irabazteko moduko partidua da. Ordiziarrak 12 punturekin sailkapeneko zuloan daude. Mondrak azken partiduan galdutako puntuak berreskuratzeko aukera ona izan dezake 21. ihardunaldian.

## SASKIBALOIA Berrito Iturripen




Saskibaloia taldeak Iturripen jokatu-  
ko du berrito zapatuan, arratsaldeko 6etan. 16. ihar-

dunaldirako arrasatearrek Santurtzi- liderra- izango dute aurrean. Etxeko taldeak urduritasun eta presio barik jokatuko du. Dagoeneko badakite jeitsierako fasea jokatu behar dutela eta horretarako ari dira prestatzen. Usteak betetzen badira, zapatuan ez da sorpresarik egongo. Hala ere, jokalariek asko eskertuko lukete herritarren laguntza eta babesa harmailetan.



## ESKUBALOIA Zapatuan Musakolan



Arrasate eskubaloi taldeak Gasteizko El Pilar taldea izango du aurkari zapatuan, hilak 24,

Musakolako kiroldegian arratsaldeko 5.30etan. Saillkapenaren behealdean dauden taldeen arteko norgehiagoka izango dela kontuan hartuta, emaitzak inoiz baino garrantzi handiagoa izango du.

## RUGBYA Bazkide kanpaina abian



Patxi Gorosabelen mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten Hernaniren kontra. Zapatuan berriro puntuak lortzeko aurkari aproposa izango dute. Arratiko Zekorra azken sailkatuaren kontra jokatuko dute arratsaldeko 4retan. Bestalde, Rugby taldeak bazkide kanpaina jarri du abian. 1000 pezetaren truke, taldeko bazkide izan daiteke edonor.

## IGERIKETA Gipuzkoako igeriketa txapelketa



Arrasate igeriketa taldeko igerilariek Zarautzen jokatuko den Gipuzkoako igeriketa txapelketan hartuko dute parte aste bukaera honetan. Naiara Corcuera, Isadi Mondragon, Jon Balzategi eta Amaia Rodriguez izango dira gure ordezkariak. Klasika modalitateko txapelketa izango da. Bestalde, ekainean edo uztailean Euskadiko aletadun txapelketa jokatuko da Arrasaten.

# Leire Zabala gaztea Gipuzkoako judo txapeldun

Arrasateko judo taldeak txapelakentzeko moduko emaitzak lortu zituen Gipuzkoako judo txapelketan. Joan zen aste bukaeran Egiako kiroldegian jokatuako txapelketan zortzi arrasatear judoka izan ziren; Leire Zabala, Maialen Aranegi, Aritz Lazkano, Itziar Zabala, Eduardo Gonzalez eta Aitor Lopez. Guztira zortzi domina lortu zituzten.

17 urtetik beherakoetan Leire Zabala Gipuzkoako txapelduna izan zen; Maialen Aranegi txapeldun-orde. Mutiletan Aritz Lazkanok hirugarren postua eskuratu zuen. 20 urtetik beherakoetan, berriz, zilarrezko dominaren jabe Itziar Zabala egin zen eta Eduardo Gonzalezek brontzezkoa lortu zuen. Bi judoka hauek senior mailan



Argazkian, Eduardo eta Aritz ezik, beste judoka guztiak agertzen dira.

ere hartu zuten parte. Itziar geratu zen eta Eduardok postu emakumeetan hirugarren tu bera lortu zuen mutiletan.

## Erik Martin karateka Estatuko txapelketara

Saioa karate eskolako Erik Martin karatekak kadete eta junior mailako Estatuko txapelketan hartuko du parte asteburu honetan, hilak 24 eta 25. Madrilan jokatu den txapelketan Erik Euskadiko selekzioarekin arituko da. Iñaki Muñoz entrenatzailea pozik dago bere ikasleak selekzioaren partaide izan behar delako. "Selekzioa heltzea gauza handia da. Horregatik, Eriki iaz txapelketa horretan egindako akatsak zuzentzeko baino ez diot eskatu behar. Konfiantza daukat



beragan eta onena ematen saiatuko dela garbi daukat".

## Zilarrezko dominak Gil eta Mentxakarendako

Ezkio-Itsason izandako Gipuzkoako kros txapelketan Arrasateko beteranoek maila bikaina erakutsi zuten. Emakumeetan Mari Jose Gilek zilarrezko domina lortu zuen, 16 minutu eta 33 segunduko denborarekin. Gizonnezkoetan, Javier Mentxaka bigarrena izan zen, 18 minutu eta 48 segundurekin eta Alfonso Luelmo hirugarren. Honen denbora: 19 minutu eta 13 segundu.

Domeka honetan, hilak 25, berriz, Donostiako krosa korrituko da. Hamar kilometroko proba Javier Mentxaka eta Enrike Kabiketa joango dira. Krosa eguerdiko 12etan hasiko da.



## Bigarren fasea gainean

Lehen fasea bukatzeko lau ihardunaldi baino ez dira falta. Otsailaren 14-15eko aste bukaeran multzo bakoitzeko lehenengo hamar taldeak eta 11. onena bigarren faserako sailkatuko dira. Talde batzuk, beraz, aurrera egin gura badute, azken txanpa honetan ezingo dira lokartu!



## Laburrak

### ■ SAILKATUTA DAUDEN TALDEAK

Lehen fasea bukatzeko lau ihardunaldi falta direnean, zortzi talde daude matematikoki sailkatuta: A multzoan, Argi Ibili. B multzoan, Orlando Piratas, DA Iritz eta Fraguel gol. D multzoan, berriz, Naranja Mekanika, Koka

Juniors, Estrella taberna eta Aldibi.

### ■ INOIZ BAINO PARTIDU GEHIAGO

12. ihardunaldian izandako arazoengatik jokatu barik geratu ziren partiduak aste bukaera honetan jokatuko dira; zehazki esateko, domekan.

Horregatik, zapatuan sekula baino partidu gehiago jokatuko da Iturripe eta Zaldibarren. Talde batzuek bi neurketa izango dituzte. Etxe mobil, Lora-tegi, Ainarexia, Estrella taberna, Koka Juniors, Onaniereng eta Leya taldeek zapatuan eta domekan neurtu beharko dituzte indarrak. Sasoiak dauden

ikusteko aproba ona!

### ■ BESTE TALDE BAT KALEAN

Pipwhis taldea 12. ihardunaldian ez zenez aurkeztu, kalean dago. Dagoeneko hiru talde daude txapelketatik kanpo: Epeh, Arrogoi taberna eta Pipwhis.

**GASTON Y DANIELA**  
Tapizeria • Mokatak      Alfonbrak

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoendako altzari sail berria topatuko duzu bertan!

Zatoz estreinatu dugun erakusketa berria ezagutzen!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 79 15 65

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 79 11 72



## Sailkapenak

## Emaitzak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	13	11	1	1	82	35	23
Branka taberna	13	10	1	2	56	32	21
Sokoakoak	13	9	2	2	83	37	20
Nuevo taberna	13	9	1	3	72	46	19
AC Surcos	13	9	1	3	62	37	19
Tamagotxi	13	8	0	5	36	37	16
KKjauri	13	7	1	5	40	31	15
ke Oxtias	13	6	3	4	54	35	15
Garaje Oscar	13	7	1	5	55	37	15
Jotakabau	13	6	2	5	31	30	14
Leya	12	5	3	4	60	46	13
Pipwhis	13	6	1	6	46	41	13
GANbelas	13	2	4	7	34	41	8
Potosorri	13	2	3	8	36	57	7
Cartonajes Igamo	13	2	2	9	25	48	6
Onaniereng	12	2	1	9	35	61	5
Babajana sexy	13	1	3	7	33	68	5
Nacex.S	13	0	0	13	26	156	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	13	11	2	0	69	24	24
DA Iriztu	13	8	4	1	55	42	20
Fraguel Gol	13	8	3	2	52	39	19
Jey Holigans	13	9	0	4	68	44	18
Betrayer	13	7	3	3	53	35	17
Jako al rey	13	7	2	4	53	43	16
Lautherbrunen	13	7	2	4	52	45	16
Irati STS	13	7	1	5	58	47	15
Pepelus	12	7	0	5	58	47	14
Zotz	13	6	1	6	41	39	13
DKB	13	5	1	7	48	48	11
Komando Alpar.	13	4	2	7	43	59	10
Bukanak	13	4	2	7	54	71	10
Rotor de Bolbog.	13	4	1	8	47	48	9
Arrogoi taberna	13	3	0	10	32	52	6
Ainarexia	12	2	1	9	43	72	5
Sobred. de Claro	13	2	1	10	40	82	5
Epeh	13	2	0	11	23	39	4

### A taldea

Ke Oxtias 3 - Garaje oscar 1  
 Jotakabau 5 - Nuevo taberna 8  
 Argi Ibili 6 - KKjauri 4  
 Babajana Sexy 4 - Ganbelas 4  
 Onaniereng 5 - Potosorri 1  
 Tamagotxi 0 - Branka taberna 6  
 Sokoakoak 4 - Cart. Igamo 3  
 AC surcos 1 - Pipwhis 0  
 Nacex.S 5 - Leya 11

### B taldea

Pepelus 11 - Bukanak 6  
 Jey Holigans 12 - Ainarexia 1  
 Betrayer 4 - Zotz 2  
 Irati STS 3 - Rotor de Bolbog. 9  
 Epeh 0 - DKB 1  
 Arrogoi taberna 0 - DA Iriztu 1  
 Kom. Alpargat 1 - Lautherbr. 5  
 Orlando Piratas 4 - Jako al rey 3  
 Sobred. de Claro 6 - Fraguel Gol 7

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	13	12	0	1	68	30	24
Koka Juniors	12	10	2	0	81	32	22
Estrella taberna	12	10	0	2	81	38	20
Aldibi	13	8	3	2	78	37	19
AT Celaya	13	8	2	3	59	38	18
Lorategi	12	8	0	4	77	31	16
Totem	13	6	2	5	55	27	14
Aurrera Bolie	13	6	2	5	58	50	14
Los Heredia	13	5	3	5	40	35	13
TXeyenex	13	5	2	6	57	56	12
Insert coin	13	5	1	7	49	55	11
Borroch Roll	13	4	3	6	37	47	11
Aldapa taberna	13	5	0	8	61	73	10
Kamasutra	13	2	5	6	39	53	9
Etxe mobil	12	3	1	8	34	79	7
Makai	13	2	0	11	38	114	4
Elisabeth	13	1	1	11	28	86	3
Iluna Taberna	13	1	1	11	27	82	3



**JOKALARI BERRIA?** Baloiauren aurrean trebe ikusten zaio eta aurkarie aurre egiteko jokalaria bikaina izango zen. Arazo bakarra baloiekin egongo litzateke; orain 40 bat badituzte, horrelako fitxaketekin beste hainbeste beharko litzateke eta!

### D taldea

Estrella taberna 7 - Kamasutra 3  
 Aurrera Bolie 3 - Koka Juniors 5  
 Naranja Mekan. 14 - Iluna tab. 0  
 Etxe Mobil 9 - Makai 7  
 Borroch Roll 3 - At Celaya 3  
 Aldibi 6 - Insert Coin 3  
 Aldapa taberna 2 - Txeyenex 12  
 Lorategi Potroak 6 - Totem 2  
 Elisabeth 3 - Los Heredia 3

**Aldibi**  
 Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
 Tel.: 71 20 02

## Hurrengo partiduak

### Urtarrilak 24, Larunbata

#### Zaldibar

- 8.50 Zotz - DKB
- 10.00 Jotakabau - AC Surcos
- 11.00 Jako al Rey - Ainarexia
- 12.00 Aurrera Bolie - Lorategi
- 13.00 Garaje Oscar - Branka taberna
- 14.00 Txeyenex - Elisabeth
- 15.00 Bukanak - DA Iriztu
- 16.00 betrayer - Komando Alpargat
- 17.00 Estrella taberna - Aldibi
- 18.00 Ganbelas - Leya
- 19.00 Totem - Koka Juniors

### Iturripe A

- 10.00 ke oXtias - Tamagotxi
- 11.00 Iluna taberna - AT Celaya
- 12.00 KKjauri - Potosorri
- 13.00 Rotor de Bolbogrado - Fraguel Gol
- 14.00 Makai - los heredia
- 15.00 Cartonajes Igamo - Nacex.S
- 16.00 Naranja Mek. - Aldaopa taberna
- 17.00 Kamasutra - Insert Coin

### Iturripe B

- 13.00 Babajana Sexy - Onaniereng
- 14.00 Jey Holigans - Orlando Piratas
- 15.00 Etxe Mobil - Borroch Roll
- 16.00 Argi Ibili - Sokoakoak
- 17.00 Lautherbrunen - Sobred. de Claro

### Urtarrilak 25, Igandea

#### Zaldibar

- 9.50 Etxe Mobil - Lorategi
- 11.00 Pepelus - Ainarexia
- 12.00 Estrella taberna - Koka Juniors
- 13.00 Onaniereng - Leya



JUAN IGNACIO MONTIANO (IDAZLEA)

# “Niretako idaztea behar

**I**daztea afizioa baino zerbait gehiago da Juan Ignacio Montianoarentzat. Horregatik, astia daukanean polizia-nobelak idazten ditu. Diziplinarekin idazten du eta horrek fruituak ematen ditu. Horra hor azken bi urteetan egindako lanaren emaitza, oraindik orain argitaratu dena: “Zaino” eleberria. Bere bigarren nobela honen gainean berba egiteko, euskaltegitik bueltan bere etxean egin digu ongi etorria 36 urteko idazle arrasatearrak.

**-Euskara ikasten ari zara. Inoiz euskaraz idazteko asmorik bai?**

- Horretan hasi berria naitenez ez dut uste inoiz euskaraz nobela bat idatziko dudarik. Euskaraz hitz egiteko gai izan arte, nahikoa lan! Eleberrri bat idazteko oso ondo jakin behar da hizkuntza. Hori bai, gustatuko litzaidake euskaraz irakurtzea.

**- Zer moduz doa Zainoren salmenta?**

- Kontu hori editorialak jakingo du baina uste dut oso ondo ari dela saltzen.

**- Zaila da liburua argitaratuko dizun argitaletxea aurkitzea?**

- Bai, oso zaila da, jende askok idazten du eta. Lehenengo nobela argitaletxe alternatibo batek argitaratu zidan. Hau da, eurek heltzen zaionaren artean aukeratzten dute, baina idazleak diru kopuru bat

jarri behar izaten du. Nobela hari esker, oraingo hau era normalean argitaratzea lortu dut, nire eleberrian sinisten duen argitaletxe bat aurkitu ostean.

Lagun bati esker lortu dut Granadako argitaletxe batek nobela kaleratzea.

**- Diru asko atera daiteke eleberririk idaztetik?**

- Bai, baina horretarako liburu asko saldu behar da eta hori ez da nire kasua. Hala ere ez dut dirurik galtzen.

**- Zein prozesu jarraitzen duzu eleberria idazterakoan?**

- Lehendabizi eleberrriaren estruktura egiten dut, hau da, organigrama finkatu. Hori da beharbada lan zailena eta ondoren idaz-



**“Umorea asko landu dut, eta iruditzen zait bizitzan umorea beharrezkoa dela. Ahalegintzen naiz umore sanoa lantzen, inorekin sartu gabe”**



# ...ezko zerbait da”

ten hasten naiz. Normalean, idazten hasten naizenean, eskeman zehaztutako gauza batzuk aldatu egin behar izaten ditut. Gehienbat gauean edo aste bukaeretan idazten dut eta batzuetan goiz aldean ere bai.

**- Zaino irakurri ez dugu-nondako, esango zeniguke Arrasateko zein pertsonaia-ri egiten diozun erreferentzia?**

- Lehengo egunean kale-tik nindoala emakume batek gelditu eta esan zidan: “Badakit Arrasateko zein pertsonaia sartu duzun liburuan”. Dagoeneko jende askok dakienez zein den pertsonaia hori, esan egingo dut. Eleberriko per-tsonaia nagusia, inspektorea, Arrasatera etorri da ikerketa batzuk egitera, Santa Ageda-ko psikiatrikora hain zuzen. Bertan Panerorekin egiten du topo.

Nire lagun batzuei ere egi-ten diet erreferentzia liburuan,

baina horretaz eurak kontu-ratzen dira bakarrik.

**- Pertsonaiei buruz gal-detzeaz gain, jendeak zer esan dizu Zainori buruz?**

- Lehenengoa baino gus-tokoagoa dute azkena. Niri ere gehiago gustatzen zait *Zaino*.

**- Barre egiten ei da Zai-no irakurritz, beraz, zu zeu umo-retsua izango zara ba...**

- Jakina. Umorea asko lan-du dut, eta iruditzen zait bizi-tzan umorea beharrezkoa dela. Ahalegintzen naiz umore sanoa lantzen, inorekin sartu gabe.

**- Zer sentitzen duzu kale-tik zoazela zure liburua den-da batean salgai ikusten duzunean?**

- Ilusio handia egiten dit. Era berean, batzuetan irreal-a iruditzen zait, batez ere lehe-nengoa kaleratu nuenean. Orain apur bat ohitu egin naiz baina polita da.

**- Idaztea zuretzako hobby-a da.**

- Hori baino gehiago. Niretzako idaztea beharrezko zerbait da. Ez dut idazten ondo pasatzeko helburuz, hori bai-no serioagoa da.

**- Zure eleberriak zine-mara eraman daitezke?**

- Atzo, ostegunean, Bil-bon aurkeztu nuen liburua eta Ibarretxe anaiek lagundu zida-ten aurkezpenean. Ibarretxe-tarrak zine zuzendariak dira. Zinemara eraman daitezke nire eleberriak, baina...

**- Polizia-nobelak idatzi dituzu; jeneroz aldatzeko asmorik?**

- Ez dakit baina uste dut hurrengo ere antzerakoa izan-go dela. Egia esan, ez dut poli-zia-nobela asko irakurri bai-na bai fantasiatzkoak. Iruditzen zait polizia-nobelekin lortzen dudala nik nahi dudana helbu-rua, hau da, irakurleak liburua gustora irakurtzea.

**- Idazteaz gain, irakurri ere egingo duzu...**

- Une honetan *El Perfume* eta *El Silencio del Patinador* liburuak ditut eskuar-tean.

“Egia esan, ez dut polizia-nobela asko irakurri baina bai fantasiatzkoak. Polizia-nobelekin nik nahi dudana lortzen dut, irakurleak liburua gustora irakurtzea”

**PUB HAIZEA**  
arrasate

**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**ESKER ONA**  
1997ko abenduaren 21ean hil zen **Kontxu de la Maza Aranguren**en familiak bihotzez **eskertzen** ditu jasotako doluminak, eta hileta elizkizunera agertu izana.



## ■ Errukane Aperribai

SAN ANDRESEKO GAZTE TXOKOAREN DINAMIZATZAILEA



**E**rrukane 27 urte ditu. Marke-ting ikasketak egin zituen Bilbon eta hiru urte daramatza San Andreseko Gazte Txokoa dinamizatzaile. Beste ardura batek ere nahikoa buruhauste ematen dio: Gesalibarreko auzo alkatea da.

**1.- Zein da zure horoskopoa?**  
Aries.

**2.- Sinestuna zara?** Jendearengan sinesten dut.

**3.- Animalia bihurtzekotan?** Ez nintzateke animalia bihurtuko.

**4.- Zure akats bat/gauza on bat?** Burugogorra naiz/Daukadana banatu egiten dut.

**5.- Zerk lotsarazten zaitu?** Besteen pobrezian kontura bizitzeak.

**6.- Amets bat?** Aniztasunean berdintasuna.

**7.- Zer kenduko zenuke mundutik?** Norgehiagokeria.

**8.- Gertakizun historiko bat?** Sufragio unibertsala.

**9.- Nor miresten duzu?** Ama hizkuntza beste bat izanda euskaraz saiatzen dena, adibidez.

**10.- Zeri diozu beldurra?** Sugeei.

**11.- Zeozer garbatzen zaizu?** Zertarako garbatu? Konpontzea hobel!

**12.- Negar egin duzun azken aldia?** Ez naiz oso negartia.

**13.- Zer falta zaio Arrasateri?** Umorea.

**14.- Eta zuri?** Oporrak.

**15.- Lanbidez aldatzekotan?** Antzeko zerbait egingo nuke.

**16.- Arrasateko gustoko toki bat?**

Nire etxearen aurrealdea, polita eta paketsua da.

**17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Txatxili-liko informazio panela lekuz aldatzea.

**18.- Zein egunkari irakurtzen duzu?** Euskaldunon Egunkaria.

**19.- Gustoko janari bat?** Arroza.

**20.- Liburu on bat?** *Misery*, Stephen King-ena.

**21.- Filmerik onena/txarrena?** Ez dut filme asko ikusten 26 eta kritikoa txarra naiz.

**22.- Musika talderik onena/txarrena?** Ez naiz aukeratzen ausartzen.

**23.- Telebistako programarik onena/txarrena?** Dokumentalak/Gehiegia dago.

**24.- Egin dizuten oparirik politena?** Denak dira politikak.

**25.- Denbora librean zertan pasatzen duzu?** Lagunekin, musika entzuten, irakurtzen, pasiatzen...


**26.- Oporretarako toki bat?** Lasai egoteko kostaldeko herritxo bat.

**27.- Etxeko lanik gorrotagarriena?** Ohea egitea.

**28.- Gomendio bat?** Ez izan aurrititziarik eta saiatu jendea ezagutzen.

**29.- Zerbaitegatik emango zenuke bizia?** Ezin jakin momentua iritsi artean.

**30.- 200 milioi irabaziz gero?** Zati bat banatu eta gainontzekoarekin lasai bizi.



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



# Txantxangorria

**H**egazti honek ez du aurkezpen handirik behar. Arrasatear askok ikusi edo zer-bait entzun du berari buruz eta hau Euskal Herri osora hedatzen den fenomeno da. Gogoratzen duzue Itoiz musika taldearen abestia? "txantxangorria naiz... hegal egiten". Umetxoan eskolako liburuetan ere agertu ohi da bere irudiren bat eta badago izen hori hartu duten talde kulturalik. Baina tira, badaezpada ere, hona hemen ezaugarri batzuk:

Izenak dioen bezala txantxangorriak kolore gorri bizi-biziaz apainduta du ezdarri alde eta bularralde, hau da, paparra. Beste leku batzuetan arrazoi horregatik papargorria ere deitzen diote.

Beraz, paparrari begiratu gero berehala ezagutuko dugu. Prismatiko batzurekin gainera dextente politago ikusten da.

Zer dela eta du arrakasta? argituko gabeko misterioa. Baina oso deigarria naturarengandik aparte samar bizi garen gizarte batean. Agian, jatorriz baserritar garenaren arrastoa izan daiteke. Baina ezaguna bakarrik ez, plazagizona edo kasu honetan plazatorria ere bada. Pertsonaren baten presentzia nabaritutuz gero azkar egiten dute hanka txoriek, baina askotan txantxangorria bertan gelditzen da ezer gertatuko ez balitz bezala. Badirudi konfidantza duela pertsonengan. Horregatik Santa Barbaran, Montterronen, edo beste edozein berdegunetan paseatzen gabiltzanean, adi begiratu gero zailtasun gehiegirik gabe ikusiko dugu adartxo batean papar gorria tente ala lurrean



Udalatx inguruan bizi diren txantxangorriek bertan botatzen dituzte sustraiak.

saltoka dabilela intsektuen bila.

Txepetxak ozen abesten badu, honen kantuak irau egiten du. Udaberrian eder eta fin abesten du beste txoriekin batera, baina neguan nabariagoa da bere presentzia buztanluzearekin, zozoarekin, birigarroarekin... batera beste txori gehienek baino gehiago abesten du eta.

Doinu polita du txantxan-

gorriaren kantuak, goxotasunez beteak. Arriskua sentitzen duenean, edo urduri jartzen denean, berriz, kolpeka abesten du txepetxaren antzera baina motelago eta doinu altuagoan.

Udaberria iristen denean arrak eta emeak bikotea osatzen dute biak berdinekin izanik. Emeek orduan, nola jakingo dute arrak zeintzuk diren, eta alderantziz? Behar-

bada abestiak konponduko du arazo hau, normalean arrak abesten du-eta emearentzat. Hau horrela balitz, bien arteko erakarpena entzumenetik sartuko litzateke.

Udalatx inguruan bizi diren txantxangorriek bertan botatzen dituzte sustraiak; normalean ez dira beste inora joaten. Zentzu horretan, Udalatxtar peto-petoak direla esan daiteke. Etxe ondoan txantxangorriren bat ikusten badugu, huraxe izango da askotan gure bizilaguna; baina diferentzia batzurekin: gatza, olio, isiltasuna edo eskilarak garbitzeko eskatu beharrean, abesti leun goxo batez agurtuko gaitu askotan, eguzkia sartzen denean, lotara joan aurretik.

**Udaberria iristen denean arrak eta emeak bikotea osatzen dute biak berdinekin izanik. Emeek orduan, nola jakingo dute arrak zeintzuk diren, eta alderantziz? Behar bada abestiak konponduko du arazo hau, normalean arrak abesten du-eta emearentzat.**

Urtzi Mendizabal




# Euskarazko bi filme izango dira ikusgai datozen asteetan Arrasaten

**Z**inea euskaraz programaren barruan, euskarazko bi filme emango dira datozen asteetan Alai zineman. Eusko Jaurlaritzak bultzatu du egitasmoa, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien eta 19 udalen laguntzaz. Arrasateko Udalak ere 360.000 pezeta inguru eman zituen proiektuan parte hartzeko.

Programaren helburua da EAEko ume eta gaztetxo euskaldunei zinea euskaraz areto komertzialetan eta ordu komertzialetan ikusteko aukera ematea. Momentuz martxan jarri dena proiektu pilotoa da. Azken bi urteetan, sei filme bikoiztu dira euskarara, eta orain filme horiek proiektuan parte hartu duten herrietako zine aretoetan jarri dira ematen. Lehen emanaldiak ekainaren 20an izan ziren, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Barakaldon. Orduko hartan "Rainbow" ("Ortzadarra") filme euskaratua aukeratu zen. Baina hau ez dute Arrasatera ekarriko, beste bi baizik: "Wallace and Gromit, mozketa sakona" eta "Sagu txiki, sagu maite". Helburua euskarazko zinea areto komertzialetara eramatea denez, Alai zineman izango dira ikusgai.

Euskaratzeko filmeak aukeratzeko orduan, hainbat irizpide hartu dituzte kontuan; besteak beste, kalitatezko lanak izatea, segituan modaz pasatzen ez diren horietakoak eta publiko esparru zabal bati zuzendutakoak. Batez ere familian ikusteko filmeak bilatu dira, programaren helburuetako bat euskara familiaren bidez transmititzea



## "Wallace & Gromit, mozketa sakona"

(Britania Handia, 1996)


Plastilinaz egindako irudiak dira protagonistak. Nick Park-ek zuzenduta, animazio onenaren Oskar saria irabazi zuen 1996an. Filme hau edozeinendako da aproposa: haurrentzat egokia, animalia eta bestelakoen abenturak kontatzen direlako; helduentzat erakargarria, kalitatezko zinea delako eta istorio umoretsuak dituelako.

**Noiz:** urtarrilak 31 eta otsailak 1

**Ordua:** 16:45

**Non:** Alai zineman

**Prezioa:** 375 pta.



## "Sagu txiki, sagu maite"

(Suedia, 1986)

Lennart Gustafson animatzaile suediarak zuzendutako filmea. Marrazki bizidunak dira eta bi saguren nerabearoa kontatzen du: familia, maitemintzeak, heldutasuna, lagunekiko harremanak...

**Noiz:** otsailak 14 eta 15

**Ordua:** 17:00

**Non:** Alai zineman

**Prezioa:** 375 pta.

da eta.

Gaur egun merkatuan dauden euskarazko hiru filme horiek 96an bikoiztutakoak

dira. Iaz beste hiru filme bikoiztu ziren eta aurten estreinatuko dira. Ondoren, egitarau pilotu honen emaitzak

ikusita, egitasmoaren balantzia egin eta datozen urteetan jarraitu beharreko bidea zehaztuko dute.



JON ANDUEZA, GIDOILARIA

## Bernar, bigarren laburmetraiaren filmaketa hastear

Jon Anduezak zuzentzen duen taldeak bihar hasiko du bigarren laburmetraiaren grabaketa: "Bernar". Istorioan, haurdun dagoen neska bat eta Down sindromea duen mutil bat elkartzen dira hondartza batetan, eta bien artean erlazio berezia sortzen da.

Grabaketa Kantabrian egingo da, Sonabiako hondartzan. Horrek bi zailtasun ekarriko ditu: talde osoa bertaraino joatea, eta eguraldiaren menpe egotea. Milioi erdi baino gehiago gastatuko dute proiektu berrian.


### - Zergatik bigarren laburmetraia?

- Denbora luzea eman nuen "Laugarren galeriatik" egiteko lan taldea osatzen. Orain taldea osatuta dago, gure lehen lanak oso harrera ona izan du, sariak irabazi ditu eta horrek lanean jarraitzeko adorea eman digu. Abiapuntua zinea euskaraz egiteko asmoa izan zen, eta lehertu artean jarraituko dugu.

### - Noiz arte? Zer dago bidearen amaieran?

- Bigarrenaren ostean, gauzak serioago planteatzeko ordua ailegatuko dela uste dut. Orain arte bideo formatoan ari gara lan egiten, baina hurrengoa zine formatoan izango da seguru asko, eta laugarrena, luzemetraia. Horiek dira gure eskemak. Baina hor beste oztopo batzuk daude. Laburmetraia zine formatoan egiteko bost milioi pezeta beharko ditugu, eta laburmetraia egiteko 100 milioi gutxienez. Momentuz horretarako prestatzen ari gara. Prozesu bat bezala da.

### - Laburmetraiak, eta bideo



### formatoak, lekurik ba al dute gaur?

- Ez, eta produktoa mugitzea oso zaila da. Lekeition irabazi arte inork ez digu kasurik egin. Hori da prozesuaren alderik tristeena; badirudi hartutako lanaren ostean filmea lehiaketetara bidaltzea dela irtenbidea. Orain hasi dira leku batzutatik deitzen, laburmetraian interesatuak daudela esanez.

Aurrikusten genuen halako zerbait baina gure helburua lanak egitea da, ikastea, gu gustora geratuta konforme. Guretzat ari gara, ez jendearentzat. Erakustearena bigarren mailan dago.

Edozelan ere, euskara elkarteek zeresanik izan beharko lukete euskarazko filmeen zabalkundean, bakoitzak bere herrian emanaldiak antolatuz. Zinea euskaraz egiteko erronka hartu dugu, baina beste askok produktoa mugitzeko ardura izan beharko luke; ezin da gure gain geratu lan osoa, egitea lehenik eta mugitzea gero, dirurik gabe, erreztasunik gabe, munduko oztopo guztiakin. Hala izan behar baldin badu, bi zalantza sortzen zaizkit: zertarako jarraitu, eta zergatik euskaraz.

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Austria, Belgika, Frantzia, Irlanda, Italia, Alemania, Erresuma Batua eta Estatu Batuetako erdi mailako zentroetan lan egiteko gaztelaniako mintza laguntzaileentzako dirulaguntzak. Epea: otsailak 10.

### ■ LANA

• Lasarteko INEMek, ikasleei zuzenduriko lanpostu batzuk eskaintzen ditu, uda partean alemanian lan egiteko. Izena emateko epea: urtarrilak 30.

• Donostiako Udal Patronatuak, lau hizkuntz normalizatzaile eta laguntzaile lanpostu bat kaleratu ditu. Epea: otsailak 2.

• Arrasateko Udalak, udaltzain laguntzaile lanpostu eraizko deialdia egin du. Epea: otsailak 2.

• Arrasateko Udalak, zerbitzuetako ikuskatzaile bat eta bi administrari laguntzaile (bat balio urrituentzako) behar ditu. Epea: otsailak 5.

• Arrasateko Udaletxerako, bitartekotasun lan erregimenaz, zuzenbidean lizentziatu bat behar da. Epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zain geratzen da.

### ■ LEHIAKETAK

• Laguardiako Udalaren eskutik, IV. dokumental eta fikziozko bideo lehiaketa amateurra. 1996-97 urtetan grabatuak, VHS formatoan eta gehienez 30 minutuko luzapena duten bideoak lehiatuko dira. Epea: otsailak 15.

Informazio gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

**"Hurrengoa zine formatoan izango da seguru asko, eta laugarrena luzemetraia"**



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Zumaian atikoa salgai. Guztiz berttua. 70 m<sup>2</sup>. Gela guztiek kanpora ematen dute. 10,5 milioi. Tel.: 86 06 03. Gaueko 8etatik 10etara deitu.

• Juan Carlos Gerra kalean etxea salgai. Tel.: 77 14 93.

• Donostiako Amara auzoan etxebizitza salgai. Tel.: 45 85 09.

• Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, 2 bainugela, egongela eta trasteleku bat. 104 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 27 45.

• Otorala Lizentziatua kalean 45 m<sup>2</sup>ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

### 2. Erosi

• San Andres auzoan pisua erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

### 4. Errentan hartzeko

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

• Bikote batek pisua alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 79 02 26. Arantzazu.

### 5. Etxe konpartituak

• Gela bat nahi dut Arrasateko etxe konpartitu batean. Tel.: (94) 438 69 17.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gaez.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

• Gazte talde batek lokala errentan

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• Leintz Gatzagako Zuhaitz jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

### 15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialera hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Geriatrian diplomadun neska gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79

61 05. Amaia.

• 35 urteko emakumea gertu sukaldean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxetara arropak plantxatzera joateko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

• Umeak zaintzeko edo orduka garbiketarako egiteko gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkal ordutan edo gauetan deitu.

• Emakume euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tel.: 79 07 73.

• Pertsona gaztea edozein lan egiteko gertu. Tel.: 79 48 97.

### 18. Eskaerak

• Jatetxe eta barrarako kamareroa behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

• Esperientziadun neska behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gaez deitu.

• Emakumea behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 13 91.

• 17-25 urte bitarteko kamareroa behar da. Tel.: 79 60 43. Isi.

• Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• San Viator Ikastolak kurtsu bukatu arte injenieri euskalduna behar du Bigarren Hezkuntza irakasteko. Kurrikulumak San Viatorreran eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

• San Viator Ikastolak ingeles filologia behar du maiztergo arte ordezkapenak egiteko. Euskara menperatzea beharrezkoa da. Kurrikulumak San Viatorreran eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezalako joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Esperientziadun neska OHOk klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainitze.

• Psikologoak OHOk klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

• Jantzigintza klaseak ematen dira. Tel.: 79 53 36. Izaskun.

### 21. Eskaerak

• Injinerutzako lehen mailako ikasleak marrazketako klase partikularrak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

• Mate, natur eta gizarte zientziak emateko irakasle partikularra behar dut. ESOk 3. mila. Tel.: 79 98 28.



• Frantseseko klase partikularrak hartuko nituzke goizetan. Dei egin eguerdiko ordu batean 75 17 50 telefonora.

• 2. BUPeko ikasle batek matematikako klase partikularrak gazteleraz hartuko lituzke. Tel.: 79 55 96.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Ford Fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

• Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai, Gris metalizatua. 5 marxaduna eta estriboetako babesgarriekin. Tel.: 79 09 92. Eguerdiko ordu 1etatik 4etara.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Ilepaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

• Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modeloa. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

• Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.

• Meto markako barazki eta haragia pisatzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.

• Egoera onean dagoen disc-mana salgai. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gauetz.

• Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gauetz.

• Baserriko kiwi ederrak salgai. Auke- ra ederra! Tel.: 79 97 84.

• Faxdun telefonoa salgai. Berría eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Egur kolorea duen seaska berria merke saltzen da. Tel.: 79 56 53. Isabel.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R kotxerako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur berogailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31.

Tere.

**27. Erosi**

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

• Bigarren eskuko kotxe eder eta merkea erosiko nuke. Tel.: 77 08 15. K. Allende.

**30. Hartu**

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar ditu. Tel.: 79 37 68.

**31. Galdu**

• Parrokiatik Ferixalekurako bidean erlojua galdu zitzaidan. Narruzko korrea azul iluna du. Tel.: 77 13 77.

• Abenduaren hasieran Korreos inguruan urrezko pultsera galdu nuen. Maribel 28/08/31 jartzen du. Balio pertsonala dauka. Eskertuko da. Tel.: 79 70 73.

• Monterongo parkean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen. Aurkitu badituzu, Zeziaga dendan utzi. Eskerrik asko. Eskertuko da.

• Paper garrantzitsu batzuk zituen

karpeta urdina galdu nuen iazko urriaren 28an San Andresen. Tel.: 970 41 74 08.

• Urtarrilaren 11n urrezko erlojua galdu nuen Olarte eta Erdiko Kale bitartean. Balio sentimental du. Eskertuko da. Tel.: 79 89 32.

• Urtarrilaren 10ean Untzila eta Aretxabaleta bitartean irriti transmisio- rea galdu zitzaidan. Tel.: 79 41 57.

**32. Aurkitu**

• Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.

• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

**37. Bestelakoak**

• Irratsaio baterako antzinako diskoak behar ditugu. Zure diskoak egun batzutarako uzteko gertu bazaude dei egin 77 08 15 telefonora. Kaaitin.

• Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta egunero joan-etorrirako Zumarraga-Gasteiz norabidea kotxez egiten duen norbaitekin harremanetan jarri nahi genuke. Tel.: 72 24 57. Julene.

**MULTIOPTICAS**



**Zure begientzako onak**

Barietate haundiko monturak, gaur egungoak, erakarleak, familiako edozeinentzako pentsatuak. Kalitate hoberekin, diseinu berritzaileekin. Eta sinestezinezko prezioarekin :

**3.150 pta.**

Multiopticas-en aurkituko duzu bakarrik horrelako bilduma.

**Zure poltsikorako onak**

**3.150 pta.**

**Bonardi Bilduma**

Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :



• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.

• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.



LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK

**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 Tel. 76 15 75 BERGARA  
 J. Carlos Guerra, 1 Tel. 79 29 95 ARRASATE  
 J. M. Barandiaran Enp. Tel. 88 99 88 ORDIZIA

**EIBAR**

Bidebarrieta, 2 Tel. 20 05 22 EIBAR

**ERREENTERIA**

Pl. de La Esmaltería, 7 Tel. 51 78 11 ERREENTERIA



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Arazo ilun horrek kezkatuko zaitu.
- **Taurus** Txubaskero urdin horrekin munizipala dirudizu.
- **Gemini** Kalekantoiren batean zure bihotzeko kuttunarekin egingo duzu topo.
- **Cancer** Haginetako min ikaragarria izango duzu astebukaeran.
- **Leo** Txipiroien prezioa igoko dela eta buruhaustea izango dituzu.
- **Virgo** Ogjibidez aldatu diru gehiago irabazi nahi baduzu.
- **Libra** Zoriontasunak zure etxeko atean joko du.
- **Scorpio** Izarretan idatzita dago: Meca-ako erromesbidea egingo duzu.
- **Sagittarius** Gurasoek errieta egingo dizute arrazoi barik.
- **Capricorn** Ile gutxi eta zorri asko daukazu buruan...
- **Aquarius** Zaindu zaitetz, osasun kontuetan ahul xamar zaude eta..
- **Piscis** Munduaren bestaldeko lagun horri hotsegin beharko zenioke.

■ **Gurutzegrama**


1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10					11	
	12			13		
14	15		16			
17		18		19		
20						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1.Itxaro, AEDko kultur dinamizatzailearen abizena. 8.Zorritsu. 10. Gauza batetik ateratzen den fruitu, emaitza ona. 11. (Ald.) Alfabetoko hamaikagarren letraren izena. 12. Zerbait egitera bultzatzen gaituena. 14. Baratzetan hartzen den landare jangarria. 16. Ahuntzaren arra. 17. Hayworth, Gilda filmea egin zuen aktorearen izena. 19. Zein pertsona. 20. Txinguri.

**Bertikalak** 1. Azokan saltzen duen pertsona. 2. Piraten edari alkoholikoa. 3. Truke egin. 4. Liburu, kuaderno eta abar osatzen duten paper zatietako bakoitza. 5. Zuhaitzetatik gora igotzen den landare egurtsua. 6. Lehena eta azkena. 7. Zerbait lotzeko erabiltzen dena. 9. Iskariote ez zen beste Judas. 13. (Ald.) Andetako inperio zaharra. 15. Jainkoa lekukotzat harturik egiten den hitz-emate edo agindua. 18. Sexu maskulinoa duen animalia.

**Horizontalak:** 1. Alegría, 2. Gatilú, 3. Ir, 4. Ruse, 5. Inerte, 6. Abl, 7. Nakar, 8. (Ald.) Amoroto, 13. Bero, 17. Ino, 19. Pe.  
**Bertikalak:** 1. Agriano, 9. Larunbat, 10. ET, 11. Seiko, 12. Tiber, 14. Ar, 15. Ele, 16. Tiro, 18. Gurpen, 20. Oe, 21. Ola.



**weru**<sup>®</sup>

**weru**<sup>®</sup>  
**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
 Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95  
 ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
 leihoez gain:  
 Mocketak,  
 zoru arinak,  
 kortxoa,  
 Louverdrape  
 kortinak,  
 Kortinoba, textila...




# Tertulixan saioak aurkezle berria du: Iñaki Olaizola

Arrazoi bategatik edo beste-  
agatik, aspaldian ez da Ter-  
tulixan saioa emititu. Hala ere,  
arrasatearren iritzia jaso nahi  
duen saioa ez da bertan behe-  
ra geratu eta datorren asteaz-  
kenean etapa berri bati ekin-  
go dio. Etapa berria aurkez-  
le berriarekin. Hemendik  
aurrera Iñaki Olaizola ardu-  
ratuko da programa gidatze-  
arekin.

Jaiotzez plazentziarra bai-  
na bizilekuz arrasatearra da  
Iñaki eta 41 urte ditu. Lanbi-  
dez, berriz, irakaslea da San  
Viator ikastolan baina gehien-  
bat duen afizioagatik da eza-  
guna. Iñakik Goikobalun eta  
Donostiako Orfeoiean abes-  
ten du. Kantaria izateaz gain,  
komunikabideen mundua gus-  
tatzten zaiola esan daiteke.  
Arrasate Irratian entzun die-  
zaiokegu Zoroklasikoak saio-  
an, eta orain telebistari hel-  
duko dio.

Tertulixan-en helburua



Iñaki Olaizola.

azken hamabost egunetan  
albiste izan diren gaien ingur-  
uan hitz egitea da eta horretar-  
ako, lau lagun gonbidatzen  
dira. Norbaitek programan

parte hartu nahi badu, deitu  
beldur barik Arrasate Tele-  
bistara. Bestalde, ez ahaztu,  
etxetik ere parte hartu daite-  
keela telefono bidez.

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### ZAPATUA

9:00 **Albistegia**  
9:30 **Musika**  
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentako pro-  
grama. Maider Errarte eta Belen Aran-  
barriarekin.  
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika kla-  
sikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olai-  
zola eta Eusebio Iñarrarekin.  
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina,  
Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**  
9:30-11:00 **Goizoro**  
14:30-16:00 **Bixau orduan**

### GAUEZ

#### Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak,  
Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

#### Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Ara-  
na, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

#### Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe  
Nagusiko ikasleek eginitako magazina.

#### Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas  
eta Kaittin Allenderekin.

#### Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo  
eta Pedro Costarekin.  
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika,  
Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 24	ASTELEHENA, 26	ASTEARTEA, 27	ASTEAZKENA, 28	OSTEGUNA, 29	OSTIRALA, 30
Astean zehar eskai- nitako programa interesgarrienen errepikapena	13:30 <b>Astebete</b> . (Erre- pik.)	13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepik.)	13:30 <b>Buru astin- duz</b> . (Errepik.)	13:30 <b>Tertulixan</b> . (Errepik.)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> (Errepik.)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> . <i>Unai Ipa- rragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alaz- ne Ruiz de Munai- nekin. Gaztetxo- endako lehiaketa umoretsua.</i>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren erre- paso zabala, Zal- dibarko futbito tx- apelketa, gonbida- tuak,... eta lehia- keta astelehene- ro.	21:30 <b>Lotsa barik</b> . Gonbidatuak: Juan Luis Lekunberri eta Bego Lekunberri.	21:00 <b>Tertulixan</b> . Aur- kezlea: Iñaki Olai- zola.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . <i>Pa- txi Montero</i> . Aste- an zehar jasotako berrien errepasoa.
14:45 <b>Lotsa barik</b> . Gonbidatua: Josu Otxoa, modeloa.				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> .	



**N**eguan bete-betean sartu garen arren eta San Juanak urruti badaude ere, jai giroko argazki batekin gatoz oraingo honetan.

San Juanetan ateratako argazkia da aldamenean duzuen. Herriko jai nagusiena heltzean ohitura ei zen erretratua ateratea. Argi eta garbi ikusten den moduan, argazkiko sei lagunei herriko plazan atera zieten argazkia jaietako hirugarren egunean.

Mertxe Vitoria, ezkerrean zutirik agertzen denak esan bezala, hirugarren eguna heltzeko desiatzen egoten ziren. Goizean goiz sokamuturra egoten zen eta ondoren dantzaldia egun osoan zehar. Argazkia noizkoa den gogoratu ez arren, 45 urte inguru izango dituela uste du.

Azkenik, hona hemen argazkiko protagonisten izenak: Zutik ageri direnak, ezkerretik hasita: Mertxe Vitoria, ezezaguna, Gloria De la Maza eta Begoña Mendizabal. Behean: ezezaguna eta Jaione Uribe.



Informazioa: Mertxe Vitoria.

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaidea F-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARITXABAL ETA

## GAMMA


ELEKTROLOGIA  
ZENTROA  
BEHIN-BETIKO  
DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 79 51 25



*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE

Gida **98**



Arrasate • Leintz Gatzaga  
Aretxabaleta • Eskoriatza

ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Datorren  
astean  
Gida **98** zure  
buzoian!

Ez baduzu jasotzen,  
dei egin 77 08 15 telefonora  
edo zuzenean ARKOra etorri  
(Otalora Lizentziatua, 31  
ARRASATE).



Bihotzak  
gida zaitzala.



Berria  
Opel  
Corsa

zure bizitzako motorea

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.  
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.  
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.

Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

**OPEL**  
ALEMANIAR INJENERUTZA

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.( Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.